



KATEAREN MAILAK

Prestaera:

- Jar daitezela neska-mutil guztiak ilaran, besoak gurutze moduan zabalik dituztela, eta elkarri hatz-puntekin ukitzen diotela. Horrela, kate bat osatuz, U moduko bat egin dezatela, paretetara ahalik eta gehien hurbilduta. U horrek ez du itxi behar; neska-mutil gehiegi egonez gero, osatu U hori modu egokian, eta soberan geratzen direnak gera daitezela erdian, begirale-lanak egiten.
- Denak prest daudenean, U horren muturretako bakoitzean dagoenari objektu bat eman (boligrafo bat, adibidez), eta esan objektuak U horren beste puntaraino heldu behar duela. Arau batzuk bete beharko dituzte:
 - Ezin dituzte oinak mugitu; dauden lekuan egon behar dute.
 - Ezin dute objektua bota; eskura eman behar diote ondokoari.
- Helburua eta arauak ondo azaldu ondoren, eman hasiera jarduerari. Amaitutakoan, komentatu:
 - Bi objektuak iritsi al dira katearen beste muturrera?
 - Zailtasunik izan al da bidean?
 - Ahalegin handia egin behar izan al duzue objektua pasatzeko?
- Gero, eskatu U katearen erdialdean dagoen pertsona bati katetik ateratzeko; gainerakoek, dauden lekuan geratu beharko dute.
- Berriz ere objektu bana eman katearen mutur bakoitzean dagoenari, eta eskatu objektua beste muturrera eramateko. Bigarren saio honetan, ezinezkoa izango da, arauak errespetatuz gero, objektuak helmugara iristea.
- Denak elkarrekin jarrita, gogoeta egin:
 - Iritsi al dira objektuak katearen beste muturrera?
 - Zergatik ez?
 - Katean pertsona bat gutxiago izanda, ez zarete helburua betetzeko gai izan?
 - Katearen maila guztiak al dira beharrezko helburua betetzeko?
 - Esaera zahar batek honela dio: «Katea ez da sendoagoa bere mailarik ahulena baino». Pentsatu hitz horien esanahiaren inguruan, eta, bukatzeko, hurrengo testua landu.



«Pentsatu al duzu inoiz honelakorik?

Txklatu honxk xz dauka inolako akatsik; bxstxrik gabx, txkla batxk xz du bxxr lana xgin nahi. Gainxrako txkla guztiak oso ondo dabilta, baina txkla hau xz dabil ondo, xta, ondorioz, txstua xzin da ondo irakurri, xzta?

Bxraz, zuk xsan zxnzakx unitatx bat bxstxrik xz zarxla, xta, bxraz, xz dxla xzxr aldatuko bxstxxkin batxra jardun xdo xz jardun. Baina okxr zaudx: zurx bxharra daukagu; oso garrantzitsua zara gurxtzat.

Hurrngo batxan, pxntsatzxn baduzu xz zarxla garrantzitsua, xdo bxstx norbait xrx xz dxla (gizaki bat, animalia bat, hxrrialdx bat...), gogora xzazu txklatu honxn kasua.

Arx gxhiago: pxntsa zxr gxrtatuko l%tzatxkxxn b% txkla has%ko bal%ra ga%zk% funtz%onatzxn... Xdo h%r\$... Xdo l&\$!»